LABORAL KUTXA RDTO.FIJO IX, P.P.

2023KO LEHEN HIRUHILEKO TXOSTENA

Urteko lehen hiruhilekoan agerian geratu da ekonomiak kontrako egoerei aurre egiteko gai direla, kontuan hartuta banku zentral gehienek interes-tasak igotzen jarraitu dutela. Hala ere, 2022an hazkundeak zenbait aldiz beherantz berrikusi ondoren, ekonomia askotako BPGd-aren hobekuntza-aurreikuspenetan goranzko berrikuspenak egin dira urteko lehen hilabeteetan, bai eta, beraz, munduko BPGd-aren aurreikuspenetan ere; 2023an, % 2,5etik % 3ra bitartean haztea espero da. Estatu Batuetan, oraindik ere sendotasun-zantzuak daude eskarian. Bestalde, enpleguari eta kontsumoari buruzko datuek sendoak izaten jarraitzen dute, eta BPGd-ak hiruhilekoan hobekuntza izango duela erakusten dute, urtetik urtera % 1,5 ingurukoa, alegia. Eurogunean espero da hiruhilekoan % 1etik gorakoa izatea urtetik urterako hazkundea; urte osorako, berriz, portzentajezko puntu-erditik gorakoa izango dela kalkulatzen da. Datu hori negatiboa izango zela uste zen, baina gorantz berrikusi da azken 2 hilabeteetan (BPGd-ak 2023an behera egingo zuela espero zen).

Ekonomiaren erresilientzia horrek zaildu egiten du inflazioa azkarrago moteltzea. Hori dela eta, merkatuak interes-tasen igoera gehiago deskontatu behar izan ditu urtarrilean eta otsailean, bai Estatu Batuetan, bai eurogunean. Izan ere, inflazioa txikitzen ari da, baina oso maila altuan jarraitzen du, banku zentralen helburuekin bat etorriz. AEBn, martxoko KPIak % 5eko aldakuntza izan du urtetik urtera; eurogunean, berriz, % 6,9koa, tasak igotzeko prozesua atzeratuago dago eta. Ildo horretan, tasen tentsioak bere horretan jarraitu du ekonomiarik gehienetan. Estatu Batuetako FEDek oinarrizko 50 puntuko igoera egin du hiruhilekoan, % 5eraino, eta EBZk oinarrizko 100 puntukoa, % 3,5eraino. Biek zerbait gehiago igo ditzakete tasak oraindik: AEBn % 0,25 eta % 0,50 bitarte eta EDBn % 1 inguru. Hala ere, epe luzeagoko interes-tasak jaitsi egin dira hiruhilekoan, eta, ondorioz, gobernuaren errenta finkoko zorroek portaera ona izan dute. Tasak igotzeari laster utziko diotelako gertatu da hori.

Eta, testuinguru horretan -inflazioa moteltzen ari da baina handia da oraindik, esperotako hazkundeak hobera ari dira egiten eta banku zentralak tasak igotzen ari dira-, beste ezusteko bat sortu da martxoaren hasieran, zalantzazko ondorioak izango dituena eta merkatua zigortu duena: Estatu Batuetan arazoak zituzten 2 banku erori izana. Horrek finantza-minikrisi bat sorrarazi du, eta, besteak beste, burtsen kotizazioak kaltetu ditu, eta kredituko spreadak igoarazi. Dena den, bi merkatu horiek portaera positiboa izan dute lehen hiruhilekoan: Europako burtsetan % 10etik gorako irabaziak izan dira, eta pixka bat txikiagoak Estatu Batuetan eta Japonian; eta zor korporatiboak % 1,75etik % 3ra bitarteko igoera izan du, kreditu-kalitatearen arabera.

ARAUDI ALDAKETAK

Hiruhilekoan ez da araudi aldaketarik izan.

PLANAREN DATU IDENTIFIKATZAILEAK

. DGSFPen Erregistroan F1799 zenbakiarekin inskribatutako Pentsio Fondoa.
. Atxikitako Pentsio Plana: LABORAL KUTXA RDTO.FIJO IX, P.P.. Erregistro-zenbakia: N5153
. Sozietate Gestorea: CAJA LABORAL PENSIONES S.A., G.F.P., PS José M. Arizmendiarrieta s/n 20500-Arrasate/Mondragón (Gipuzkoa). Erregistro-zenbakia: G0217
. Gordailuzaina: CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO, PS Jose Maria Arizmendiarrieta S/N 20500-Arrasate/Mondragón (Gipuzkoa). Erregistro-zenbakia: D0194
. Gutxieneko inbertsioa: 30,05 euros.
. Entitate Ikuskaria: PRICEWATERHOUSECOOPERS S.A.
. Errenta finko eta diru merkatuko aktiboetan inbertitzen duen Pentsio Plan Indibiduala Pentsio-fondo honen gaineko kanpo-bermearen arabera, bermatzen dugu partaidetzak 2023ko apirilaren 30ean izango duen likidazio-balioa, gutxienez, 6,060000koa izango dela. Fondoa 2023-04-30 baino lehen mugitu edo kobratuz gero, berme horrek ez du eraginik izango.Lotutako eragiketen barne prozedurei buruzko informazioa, ondorengo helbidean dago eskuragai: https://www.laboralkutxa.com/pdf/planes/OpVinculadasRICCLPensionesEus.pdf
. Entitate Kudeatzaileak bere Jokaera Araubidean jasotako prozedurak ezari ditu interes-gatazkak ekiditeko eta lotutako eragiketak Erakundearen mesedean soilik eta merkatuko baldintza berdinetan edo hobeagoetan egiten direla bermatzeko.
. Euskadiko Kutxa, fondoaren Entitate Gordailuzaina, Entitate Kudeatzailearen bazkide bakarra da eta, indarreko araudiak betez, bi entitateen artean jarduerak bereizteko irizpideak ezarri dira.

PLANAREN BILAKAERA

ALDIA	ERRENTAG. GARBIA	GASTUAK GUZTIRA
1 Hiruhilekoa	0,27	0,11
2023ko metatua	0,27	0,11
2022 Urtea	-2,65	--
Azken 3 Urteak	-1,09	--
Azken 5 Urteak	0,00	--
Azken 10 Urteak	--	--
Azken 15 Urteak	--	--
Azken 20 Urteak	--	--

DATU OROKORRAK

	EGUNGO HIRUHILEKOA	AURREKO HIRUHILEKOA
Ondarea	7.330.421,87	7.514.188,60
Partaidetza kopurua	1.214.243,91	1.248.019,07
Likidazio-balioa partaidetzagatik	6,037026	6,020892
	EHUNEKOA	**KALKULO OINARRIA**
Urteko kudeaketa komisioa	0,31%	Ondarearen gaineko
Gordailuzainaren urteko komisioa	0,10%	Ondarearen gaineko

MERKATU ARRISKUA

Errenta Finkoaren Iraupena	0,34
Errenta Aldakorraren %	--

ZORROAREN ERAKETA MERKATU BALIOAN

BALIOAREN DESKRIBAPENA	23/03/31ko BALORAZIOA	ZORROAREKIKO %
ERRENTA FINKOA	**7.362.567,55**	**100,00%**
REPO	30.000,00	0,41%
BO. COMUNIDAD FORAL NAVARRA 2,033% 2023	2.895.478,70	39,33%
BO. ESTADO ESPAÑA 230430 S TRIP	3.372.462,60	45,81%
BO. ESTADO ESPAÑA 230730 S TRIP PRINCIPAL	1.064.626,25	14,46%
ZORROA GUZTIRA	**7.362.567,55**	**100,00%**